

# **Adopzio kasuetan egokitzapena lortzeko jarraibideak**

Adopzio-familetan, aita edo ama izatea modu desberdin batean bizi izaten da. Garrantzitsua da egokitzapen hori aldi berean ematea, etxea eta familiaren bizitza haurraren ezaugarrietara egokitu daitezen; egokitzapena oso erraza edo oso zaila izan daiteke, haurraren ezaugarrien nolakotasunaren arabera eta familiako kideek burutzen duten esku-hartzearen arabera.

Komenigarria izango da:

- Istorio pertsonala lantzea: oso garrantzitsua da, haurraren nortasun pertsonalaren sentimendurako eta bere doitze psikologikorako. Hori dela eta, familiak kontziente izan behar dira, hurrei beraien jatorria zein den ezagutarazteak duen garrantziaz. Izan ere, baliteke, haurrak beraien kabuz, ustekabean bere jatorria zein den ezagutzea eta horrek, haurraren konfiantza sentimendua gutxiagotuko luke sistema familiarraren barnean.
- Bere adopzioaz, naturaltasunez eta bere adinera egokitutako modu egoki batean hitz egitea (bi eta hiru urte bitartean hasi).
- Haurraren bizitzan, bere jatorrizko familiarentzat espazio emozional positiboa izan dezan uztea: beraiekin hitz egiten utzi, bere emozioak modu natural batez adierazten utzi eta emozio hauek bideratzen lagundu.
- Jatorrizko familiarekiko ditugun aurreiritziak eta kezkak saihestea: ez da gomendagarria jatorrizko familiaren alde txarretan tematzea.
- Haurra abandonatua izan denaren sentimenduagatik lotsatua eta minduta egon daitekeela ulertzea.
- Familiako kide eta parte denaren sentimendua izan ditzan erraztea.
- Anai-arreba berrietara doitzeko bidea erraztea (anai-arrebak izatekotan).
- Gehiegizko babesari saihestea: ona da bere adinari eta garapen mailari egokitutako erantzukizun maila bat eskatzea eta modu berean autonomia sustatzea.
- Agertu daitekeen edozein arazoren aurrean, adoptatua denaren aitzakia ez erabiltzea.
- Gabezia bortitz bat eman den kasuetan, gomendagarria da haiek egoki diagnostikatzea eta haiek indarberritzen eta sendatzen laguntzea, estimulazio programa errealista batekin.
- Egoera berean dauden beste familia batzuekiko komunikazioa erraztea, harreman hau, asegarria izan daitekeelako eta heziketa prozesuan lagungarriak izan daitezkeen baliabideen bilaketa erraztu dezakeelako.
- Hurrek beraien zalantzak eta sentimenduak gidatzeko denbora behar dute. Atxikimendu ziur eta egonkor bat ez da egun batzuetan ezta aste batzuetan lortzen. Adoptatuak izan diren haur gehienak, atxikimendu harremanetan, egoki garatzen dira eta familia ondo egokitzen dira. Zailtasun maila, adopzio aldia baino lehenago eman daitezkeen esperientzi gogorren arabera izango da.

## **Laburpena**

Familia bakoitzak, gainontzekoez desberdintzen dituzten ezaugarri zehatz batzuk ditu. Adopzio-familiaren kasuetan, desberdintasunak nabarmenagoak izan daitezke, hainbat faktore kontuan hartzen baditugu: adopzioa gauzatzera eraman duen motibazio-maila, adoptatzen duten pertsonen ezaugarrien nolakotasuna eta adoptatuak direnen ezaugarriak, eta baita barnean eman daitezkeen harreman dinamikak.